

13 – JABETZAREN GAINEKO MUGAK

Azpiegiturak eraiki, erabili eta babesteko, edota pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, behar den jabetza kentzerakoan edo mugatzerakoan, sektore elektrikoko azaroaren 27ko 54/1997 Legea hartuko da kontuan (IX. Titulua).

Legeko 52. artikulua araber, erabilpen publikotzat jotzen dira energia elektrikoa sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazio elektrikoak, eta hori instalazioak ezartzeko beharrezko diren ondasunen eta eskubideen nahitaezko desjabetzea burutzeko, eta bide zorrak ezartzeko eta gauzatzeko.

Instalazioak herri erabilpenerako direla onartzeko, beharrezkoa izango da enpresa interesdunak hala eskatzea. Eskieran eskatzaileak banan-banan aipatuko ditu bere iritziz desjabetu behar diren ondasunak eta eskubideak. Ondasunak eta eskubideak herri erabilerarako direla deklaratzeko berekin dakar beti deklarazioak ukitzen dituen ondasunak hartzea eta eskubideak eskuratzea, eta baita presazko okupazioa ere (Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legea, 52. artikulua).

Era berean, sektore elektrikoko Legeko 54-2 artikulua araber, erabilera publikoaren adierazpenak barekin dakar instalazio elektrikoa lursailetan ezartzeko edo lursailetatik pasatzeko baimena. Lursail horiek Estatuarenak edo Autonomia Erkidegoarenak izan daitezke (jabetza, erabilera edo zerbitzu publikokoak edo ondare ondasunak) edota Lurralde Historikoarenak edo udalerrriarenak ere bai (erabilera publiko, bereak edo komunalak, edota obra, zerbitzu eta zor publiko eremuetakoak).